

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1316

*AGINDUA, 2022ko martxoaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez, batetik, ezartzen baita gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkarte eta haien batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean, eta, bestetik, indarrik gabe uzten baita 2019ko ekainaren 13ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkarte eta haien batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean.*

Nekazarien elkarteei eta haien batasun eta federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarteak eta haien batasunak aitortzeko oinarritzko arauak ezarri ziren.

Dekretu horren 2. artikulua araberan, aitortza hori lortzeko, gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumen jakin batzuk bete behar dira, bai eta elkartean gutxienez egon beharreko kide kopurua ere, produktu bakoitzerako edo produktu-multzo bakoitzerako. Gutxieneko horiek eranskinean jasota daude.

Halaber, dekretuaren 7.2 artikulua xedatzen duenez, nekazaritzaren arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez, gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumenak eta ekoizleen elkarteak izan beharreko gutxieneko kide-kopurua ezarri ahal izango dira, dekretu horren eranskinean jasotzen direnez bestelako produktu-erakunde bakoitzerako edo produktu-multzo-erakunde bakoitzerako, bai ekoizleen elkarteei bai haien batasunei dagokienez.

Oilo-arrautzen ekoizleek adierazi zuten sektore horretako ekoizle-elkarte bat sortu nahi zutela, urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuan xedatutakoa baliatuta. Horrek berekin ekarri zuen 2019ko ekainaren 13ko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkarte eta haien batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean.

Aipatutako agindua indarrean jarri zenetik, ikusi da sektorea ez dela aurreikusitako bezala dimentsionatu, hau da: haztegi industrialek lortzen dituzte ezarritako negozio-bolumenak, baina hori zailagoa da ekoizpen-eredu hain intentsiboak ez dituzten ekoizle profesionalentzat, arrautza ekologikoak edo landa-arrautzak ekoizten dituztenentzat, esaterako. Hain zuzen ere, sektore horiek eskatu dute negozio-bolumenaren eta kide-kopuruaren bolumen-atalaseak berrikusteko eta aldatzeko.

Sailak ezarrita dauden atalaseak aldatzeko aukera aztertu du, sektorean elkarteen sorrera sustatze aldera, eta, helburu hori erdiesteko, egoki ikusten du gutxieneko negozio-bolumena murriztea eta gutxieneko kide-kopurua handitzea, bai ekoizle-taldeetan bai haien batasunetan.

Hori dela eta, indarrik gabe utzi behar da 2019ko ekainaren 13ko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkarte eta haien batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean, eta agindu berri bat eman behar da, zeinaren bidez ezartzen baitira gutxieneko negozio-bolumen berriak, kide-kopuru berriak eta

ekoizpen-bolumen berriak, ekoizpen-eredu hain intentsiboak ez dituzten ekoizle-elkarte berriak ahalbidetzeko oilo-arrautzen sektorean.

Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumena, elkartutako gutxieneko ekoizle-kopurua eta gutxieneko ekoizpena ezartzea, nekazarien elkarte gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean. Hona hemen:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide-kopurua	Gutxieneko ekoizpena
Oilo-arrautzak	7.500.000 euro	10	4.000.000 dozena

Bigarrena.– Gutxieneko negozio-bolumena, elkartutako gutxieneko ekoizle-kopurua eta gutxieneko ekoizpena ezartzea, nekazarien elkartearen batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean. Hona hemen:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide-kopurua	Gutxieneko ekoizpena
Oilo-arrautzak	15.000.000 euro	20	8.000.000 dozena

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaizkete interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 10a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.